



**Sareen** sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala  
Tercer Sector Social de Euskadi

**#125**  
**Mila**  
**Esker**

Maiatzak 12, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Eguna

## **Eskertze masiboa Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko boluntario eta profesionalei**

- **#125MilaEsker** lelopean, Sareen Sareak kanpaina bat hasi du sare sozialetan, milaka boluntario eta profesionalek egiten duten lana aldarrikatzeko
- **Osasun-krisialdian, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeak buru-belarri aritu dira pertsona zaurgarrienen premiei erantzuteko.**

**Bilbo, 2020ko maiatzak 11.** Maiatzaren 12a, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Egunaren harira, Sareen Sareak eskertze kanpaina bat abiarazi du milaka pertsonak egunero egiten duten lana eskertzeko. Koronabirusak eragindako osasun-krisiak eragin handia izan du euren lanean. "Pandemiaren aurrean, Euskadiko profesionalek eta boluntarioek aparteko ahalegina egin dute pertsona kalteberenei laguntzeko", azaldu du Sareen Sareak.

Zentzu horretan, hirugarren sektorre sozialeko erakundeak "buru-belarri" aritu dira egoera ahulenean dauden kolektiboen beharrei premiazko erantzunak ematen, hala nola etxerik gabeko pertsonen, mendekotasuna duten adinekoei, desgaitasun fisiko edo intelektuala duten pertsonen edota krisiak sozioekonomikoki "gogor kolpatu" dituen pertsonen.

"Horregatik guztiagatik, orain inoiz baino gehiago, gure aintzatespena erakutsi nahi dugu eta txalo zaparrada eskaini nahi diegu esku-hartze sozialaren lehen lerroan dauden pertsona guztiei", adierazi du Sareen Sareak.

### **Eskertze-erronka**

#125MilaEsker lelopean, Sareen Sareak kanpaina bat abiarazi du sare sozialetan, pertsona horiek aintzatesteko hainbat edukirekin. Ekintza nagusietako bat erronka biral bat da, horien guztien lana ikusarazteko: "argitalpen bat egitea sare sozialetan, besteei laguntzeko denbora eta ahalegina ematen duten ezagutzen ditugun pertsonak aipatuz eta eskerrak emanez".

Sareen Sareak esker on "masibo" horretan parte hartzeko deia egin die herritarrei, #125MilaEsker traola erabiliz. Maiatzaren 5ean hasi zen erronka eta maiatzaren 17ra arte iraungo du. Dagoeneko, herritarrak, hirugarren sektorre sozialeko pertsonak eta erakundeak eta eragile sozial eta instituzionalak parte hartzen ari dira.



**Sareen** sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala  
Tercer Sector Social de Euskadi

**#125**  
**Mila**  
**Esker**

### **Gizarte-sare handia**

Sareen Sarea Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialako erakundeen sareak biltzen dituen elkarte da. Etengabe hazten ari den sektorea da, 3.900 erakundek, 138.000 boluntariok eta 38.000 profesionalak osatzen dutena.

"Gizarte justu eta solidarioago, kohesionatuago eta parte-hartzaileago baterantz aurrera egiteko lan egiten dugu. Elkarlanean, gizarte eredu gizatiarrago batera hurbilduko gaituzten proposamenak eta alternatibak eraiki nahi ditugu ", azaldu du Sareen Sareak.

# **#125MilaEsker**

**EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN EGUNA**  
**DÍA DEL TERCER SECTOR SOCIAL DE EUSKADI**